



2. MAILA



Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

-  Entzumena
-  Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi zatiak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumen-proba amaitu ondoren, **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	10	20 puntu	45min inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60min inguru
	Irakurmena eta idazmena	28	50 puntu	1h 45min
	Entzumena	10	20 puntu	

ENTZUMENA

1. TESTUA

Euskadi Irratian **euskal hitzik ederrena zein den** jakin nahi dute. Horretarako iritziak jasoko dituzte.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

	Egia	Gezurra
0. <i>Alemaniko Hizkuntza Kontseiluak hitzik ederrena aukeratzeko proposamena egin zien alemaniarrei.</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
1. Alemanian, lehiaketa egin ondoren, hitza aukeratu dute.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Alemaniako epaimahaia, besteak beste, kazetariz osatuta zegoen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Xabier Mendigurenek dio erraza dela hitzik ederrena aukeratzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Entzuleak denbora beharko du hitzik ederrena aukeratzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Hizkuntza-kontuetan erantzun asko daude eta norberak erabakitzen du zein den hitzik ederrena.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Xabier Mendigurenek irain-hitz batzuk gorroto ditu, gaitzesgarriak direlako.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Albistegietako hitz batzuk ez dira sekula euskaldun naturalen artean aditzen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Umeekin erabiltzen diren hitzak gustatzen zaizkio Mendigureni.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Antzinako hitz laburrak ere gogoko ditu, indarra dutelako.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondoren, **Nagore Rementeria** Elhuyarreko kideak Geomitologiaz hitz egingo du Euskadi Irratiko saio batean.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. *Zer da Geomitologia?*
 - a. *Mitologiaren atal bat.*
 - b. *Geologoek elkarrekin bat.*
 - c. *Geologiaren atal bat.*

1. Zer ikertzen dute adituek Geomitologian?
 - a. Hondamendi naturalak nola saihestu.
 - b. Mitoen atzeko gertaerak eta gertaeren datak.
 - c. Jainkoen atzean zein mito zeuden.

2. Zein da Bele?
 - a. Sumendien jainkosa.
 - b. Sumendi baten izena.
 - c. Itsasoaren jainkosa.

3. Zer esaten digute Hawaiiiko mitoek?
 - a. Zein erregeren garaian gertatu ziren gertaera naturalak.
 - b. Erregealdi bakoitzaren hasiera eta amaiera noiz izan zen.
 - c. Erregealdi bakoitzaren iraupena zein izan zen.

4. Zer gertatu zen Kakkui Ewa erregearen garaian?
 - a. Ahuntz handi bat igaro zela eguzkiaren aurretik.
 - b. Eguzkiak hontz eder baten itxura hartu zuela.
 - c. Hontz handi bat igaro zela eguzkiaren aurretik.

5. Zer ziurtatu da NASaren tauletan?
 - a. 1301ean eguzki-eklipse bat izan zela eguna argitzean.
 - b. 1310ean eguzki-eklipse bat izan zela iluntze aldean.
 - c. 1301ean ilargi-eklipse bat izan zela ilargi betearen zenean.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0. - c	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
---------------	-----	-----	-----	-----	-----

ENTZUMENA

3. TESTUA

Euskadi Irratian **Karmele Jaio** idazleak bere zutabea irakurriko du. Autobusean goazenean sentitzen dugunaz arituko da.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Zer egiten dugu autobusean gaudenean?

- a. Gure espresioa ezkutatzen saiatzen gara.
- b. Ez dugu nahi besteek gu ikustea.
- c. Gustura goaz beste begira.

1.- Zer esaten du Cortazarrek liburu batean?

- a. Bidaiariei maskarak jartzen dizkiegula.
- b. Bidaiari bakoitzak bere maskara jartzen duela.
- c. Bidaiariek maskara kendu eta begira geratzen direla.

2.- Noiz sentitzen gara deseroso autobusean?

- a. Atzekoek begiratzen digutenean.
- b. Atzera begira esertzen garenean.
- c. Denek atzetik begiratzen digutenean.

3.- Zertan hasten gara nora begiratu ez dakigunean?

- a. Eskuko poltsan gauza zaharrak arakatzen.
- b. Eskuko telefonoko mezu zaharrak garbitzen.
- c. Eskuko telefonoko mezu zaharrak irakurtzen.

4.- Zer egiten duzu ezustean telefonoak jotzen duenean?

- a. Telefonoa azkar-azkar hartu.
- b. Autobuseko bidaiariei irribarre egin.
- c. Ezkutatzen saiatu.

5. Zertarako deitu dizu mutil ohiak?

- a. Azken hilabetean gaizki pasatu duela esateko.
- b. Berrito elkarrekin bueltatzeko.
- c. Berriz zurekin hitz egin nahi duela esateko.

6. Zer pentsatzen du azaldutako egoeraz artikulugileak?

- a. Autobusa harremanetarako leku egokia dela.
- b. Autobusean jendeak barruan sentitzen duena adierazten duela.
- c. Autobusa leku deserosoa dela sentipenak erakusteko.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

IRAKURMENA

1. TESTUA

Joseba Iriondo kazetariak *Berria*n argitaratutako artikulua irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu hurrengo artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Idatzi testuko zatien **letrak** laukietan, adibidean egiten den bezala.

Itzulpena gatazketan

ATZEAN ITZULTZAILEA DAGO (I)

JOSEBA IRIONDO ETBko kazetaria

Liburuetatik edota egunkarietatik bakarrik ezagutzen duzun herri batera iritsi eta bertakoen hizkuntzan piperrik ez ulertzea ohikoa izaten da leku «ezberdinetara» joaten diren berriemaile berezientzat. Urdua dela Pakistanen, paxtuera Afganistango mugan, daria Kabulen, pharsia Teheranen edo gero eta gehiagok hitz egiten duten arabiera Bagdaden.

0. C

Ez da batere eroso. Herrian herriko egunkaria hartu eta hitz bakar bat ezin harrapatu. Gauza bera telebistan edo irradian. Horregatik, berriemaile berezien ezinbesteko laguntzaile izaten dira *fixerrak*.

1.

halako alderdiko liderra nor den dakiena; bi hiriren arteko bideak arriskutsu daudela entzun duena. Kazetariak ulertzen ez duen informazio hori behar du eta *Fixerrak* kazetariak dakartzan dolarrak.

2.

Dolarrak izaten dira ezinbesteko itzultzailearen eta informatzailearen arteko katea, eta dolarraren hizkuntzan elkar ulertzen dute, hots, ingelesez.

Pakistan eta Afganistan arteko muga gatazkatsuan arraroa da bertakoen hizkuntza. Askotan hitz egiten dituzten hizkuntza guztien zerrenda osatzea ere bai, zenbat lengoia diren jakite hutsa. Fonetikoki oso antzekoak dira, esaterako, urdua eta paxtuera. Eta paxtueraz ez dakien fixer batekin Afganistanen sartzea zarauztar batekin joatea bezala da: biak dira kanpotarrak. Itzultzaileek dolarren beharra izaten dutenez, ez da erraza haiek *motu propio* onartzea ez dutela mugaz bestaldeko hizkuntza ezagutzen, berandu den arte, muga zeharkatu eta atzera bueltarik ez dagoen arte. Horregatik norberak zabaldu behar ditu belarriak, adi egon.

Ingelesez poliki moldatzen diren fixerren batez besteko soldata 100 dolarrekoa izaten da, eguneko. 100 dolar!

3.

Askotan urte guztiko diruak lortzen dituzte zazpi-zortzi egunetan. Azken batean komunikabideak -handienak batik bat- prest daude behar dena gastatzeko, behar den unean toki egokian egotearren. Leku horiek deserosoak eta -batzuetan- arriskutsuak ere izaten dira. «Erotuta zaudete, lagun. Zergatik demonio etortzen zarete hau bezalako lekuetara, bizia arriskuan jarritz?».

4.

«Lanbidea atsegin dugulako», erantzun genion. Ez zuen ulertzen. Dirutza mardula irabazteko etorri zen gurekin Pakistanetik. Bere ustetan dolar haiek merezi zuten estuasuna. Baina, hainbeste dolar zeuzkatenek zergatik hartzen zuten arrisku hura? Inondik ere, hizkuntza ezberdinetan ari ginen.

Irakurleak pentsa lezake horrelako herrietan manipulatzeko errazak direla atzerriko berriemaileak, bertako hizkuntzak ez dituztenez ulertzen. Seguru asko bai, ziriaren bat sartuko ziguten, agian dozena bat. Baina hizkuntza ez da ahozkoa bakarrik.

5.

Hizkuntza hori jaso zuten gure lankideak bide bazterrean hil zituztela zioten egun hartako informazioek ere. Begiratu urduriak, garrasiak, korrika saioak. Nahikoa ziren ulertzeko mailetak hartu eta bidea desegiteko unea zela. Ahmedek ez zigun hura itzuli edo bikoiztu behar izan. Ulertu genuen. Itzultzaileak ez zituen bere dolarrak zurezko kaxa luze batean eraman nahi muga bazterrean, eta guk ere asmo atseginagoak genituen hurrengo egunetarako.

6.

Agian ez gosea bezain txukuna. Behar gorria dagoen herrietan ingelesez ikastea izaten da errefuxiatu askorentzat itxurazko soldatak lortzeko irtenbideetako bat. Hala zen Ahemedentzat. Goseak bai laguntzen duela gauzak ulertu eta ulergarri egiten!

Berria, 2007ko azarora

Egitekoa:

Lotu kendutako zatiak testuko hutsuneekin, adibidean bezala.

Testu zati bat soberan dago.

A. Hala esan zigun behin Ander, Iñaki eta hiruroi Ahmed izeneko errefuxiatu afganiar batek, gure *fixer* jatorrak, gindoazen bidean lau kazetari garbitu zituztela jakitean.

B. Interesak batzen ditu biak, eta esan liteke askotan goseak ere lotzen dituela, tamalez.

C. Askori guztiak, gehienak, egiten zaizkigu arrotzak. Informatu behar eta herritarrek zer dioten ezin ulertu.

D. Begiratuetan, ateraldietan, hitzen bolumen eta tonuan... Horietan ere informazio baliotsua iristen da.

E. Pentsa, herriotan zer-nolako negozioa den astebetetz atzerriko kazetari batekin lan egitea.

F. *Fixerra* «lortzailea» izaten da, konsegidorea. Herriko hizkuntza eta ohiturak ezagutzen dituena;

G. Errefuxiatuen eremuan lasaitasuna nagusi izan zen, su-etena hitzartu baitzuten bi aldeek.

H. Lana atsegin izateak ez du esan nahi neurritz kanpoko arriskueta murgiltzeko grina dugunik. Itzul-tzaile ona da beharra.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

0. Adibidea: 0 = C

Hutsuneak	0	1	2	3	4	5	6
Testu zatiak	C						

2. TESTUA

Alberto Barandiaranek *Berria*n idatzitako iritzi-artikulu bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo bi galderi erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena. Idatzi **letra** laukietan.

Heldutasuna eta ezintasuna:

Euskal antzerkia geldione baten atarian dagoela nabarmendu du Agus Perez kritikariak

(1. pragrafoa) Euskal antzerkigintzan, aurtan, aspalditik datozen joerak errepikatu dira. Taldeak bidea egiten ari diren arren, oinarrian egoera **ahula** nabarmentzen da: jarraipena bermaturik ez daukan arte saila da antzerkia. Eta, hala ere, emanaldi interesgarriak sortzen dira urtero, batzuetan bikainak. Sortzeko gaitasun hori ez da, behintzat, galdu. Baina ezin dira esportatu askotan. Badaezpadakoak dira gehienetan.

(2. pragrafoa) Horixe azpimarratu du Agus Perez arte eszenikoetako BERRIAko kritikariak, aurtengo eskaintzak zer eman duen galdetuta. Itxaropenerako zirikitua ikusi, ikusten du, baina, era berean, egungo bidetik jarraituz gero sormen paralisia ere egin dezakeen egoera antzematen du. «Emanaldi sendo eta indartsuak ikusi ditugu aurtan», dio, «baina kasualitatez ia, ez finkotasunez». Horregatik, etorkizunera begira, geldialdia begitantzen zaio.

(3. pragrafoa) **HEZIKETA FALTA, LURRALDE TASUNA.**

Zergatik, ordea, ezintasuna? Heziketa falta bide da arrazoietako bat. «Hemen denak izan gara nahiko autodidaktak, eta falta izan zaigu, eta falta zaigu oraindik ere, egitura akademikoa. Arte eszenikoen goi eskola, esaterako». Bestetik, proposamenak trukatu eta taldeen arteko emariak sortzeko, biziberritzeko azken finean, lurraldeen arteko mugak arazo dira. Nafarroa eta EAeko lurraldeen artekoa «amildegia» dela dio. Nafarroan sortzen diren produktuak ez direla Gipuzkoara edo Bizkaira iristen, eta alderantziz. Ipar Euskal Herriko taldeekin harreman handiagoa dela, baina oztopo horiek,

antzerki lanen ibilbidea moztu ezik, bertan goxo egoteko sentsazioa sortzen dutela.

(4. pragrafoa) «Hemengo konpainiak ez dira lehiatzen. Antzezlanak ez doaz kanpora, eta orduan hemengo konpainiek ez dute inoiz ikusten euren burua besteen pare. Ez dute presio sano hori sentitzen. Zailtasunekin ibiltzen dira, bai, baina nahikoa dute horrekin, eta beren buruari begira bizi dira».

(5. pragrafoa) **ESPERIMENTAZIO FALTA.**

Horrekin lotuta dago, beharbada, Agus Perezek aipatzen duen beste gabezieta bat. Edo, beste era batera esanda, konpondu beharreko egiturazko beste arazo bat: esperimentazio falta. Euskal antzerki taldeak arrakastari begira bizi omen dira. Eta hor, aditu honentzat, telebistak badu zerikusirik. «ETBk eredu komikoa ezarri du, antzerki barregarriaren eredia. Haiek uste dute horretan arrakasta dutela, eta aktore asko bizi dira hortik, ogibidea hor dute. Gero, telebistako produkzioak antzeztokietara eramaten dituzte...».

(6. pragrafoa) Antzerkiola imaginarioa izan da, urteetan, faltan omen dagoen esperimentazio horren eredueta bat, baina, Agus Perezentzat, eredia ez da egokia. «Hainbat urtetan esperimentatzen ibili dira, baina oso era zarratuan, beren buruari begira gehiegi. Horrek apur bat zaildu egin du bidea, eragotzi egin die publiko zabalarengana iristea. Eta ez dago zertan arriskua eta publiko zabala bereizi».

ALBERTO BARANDIARAN

Berria, 2008ko urtarrila

1. egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo **bi galderei** erantzun. Idatzi **letra** beheko laukietan.

1. Nola ikusten du kritikariak euskal antzerkigintzaren egoera?

- a. Zailtasunek ez dute antzerki-lanen ibilbidea eten eta oraindik emanaldi interesgarriak sortzeko ahalmena erakusten du. Agus Perez kritikariaren arabera, euskal antzerkigintzak bermaturik dauka bere iraupena.
- b. Nahiz eta aurten antzerki-emanaldi bikainak ikusi ahal izan diren, euskal antzerkigintzak gabezia handiak ditu. Egoera aldatu ezean, etenaldia sumatzen du sormenean.
- c. Euskal antzerkigintzaz dio ahul hasi zela, baina gero eta hobeto ari dela. Sorkuntza-lan onak eskaini dituela oinarri sendoak dituelako eta arrakasta lortzeko eskola onak dituelako.

Idatzi laukian erantzun zuzena:

1.-

2. Zein dira egoera horren arrazoiak?

- a. Inguruko taldeekin eta atzerriko taldeekin duen lehia.
- b. Heziketa falta, harreman eta ausardia falta.
- c. Eskola eta oinarri onak, baina sormen-lanik ez.

Idatzi laukian erantzun zuzena:

2.-

2. egitekoa

Testuan **hitza** aurkitu.

Ondoren **4** azalpen irakurriko dituzu. Azalpenari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu.

Idatzi hitza laukian, adibidean egiten den bezala.

Adibidea:

0. (1. paragrafoan)

Indar, kemen, bizkortasun urrikoa dena.

ahula

1. (2. paragrafoan)

Gutziz hurbil dauden bi gauzen edo gauza baten bi zatiren artean gertatzen den irekidura luze eta mehea.

2. (3. paragrafoan)

Zerbait egiteko ahal edo gaitasunik eza.

3. (3. paragrafoan)

Horma-moduko ebaki sakona.

4. (5. paragrafoan)

Zerbaitek edo norbaitek jendearengandik jasotako harrera ona edo oniritzia.

3. TESTUA

Kirmen Uribek *Berrian* idatzitako iritzi-artikulu bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo galderi erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

Haur lotsagabea bezala



MaraTILa
KIRMEN URIBE

Idazleak jakin behar du inguruko gauzetan **arreta jartzen**, errealitatetik ateratzen gero paperera eramango duen hura. Zutabeak idazten aspertzen ez ote naizen galdetu eta nik ezetz erantzuten dut, bizitzak aurrera badarrai nire zutabeak ere ez direla bukatuko. Eguneroko gauzetatik ateratzen ditut eta idazteko gaiak. **Jendeari erreparatu** eta hortixetik.¹⁰

Txikitan ere horrelakoxea izan bide nintzen, gauza guztiekin geratzen den haur jasanezin horietakoa. Halaxe esaten du behinik behin amak. Ingurukoei begira igarotzen nuela eguna, esaten zutenei, egiten zutenei erreparatzen.

Amak dio gauza gehiegi nekiela eta ez nekiela gainera isiltzen.

Esate baterako, kalean ezagun²⁰ batekin topo egin eta gaixorik zegoen familiako bati buruz galdetzean gure amak «ondo dago» lehor bat erantzuten zuen, ez baitzuen nahi izaten herri guztiak jakin zezan gure etxekoen berri. Ez zen bera etxeko kontuak **aireratz**en ibili zale. Baina nik amaren erantzuna entzun eta «ez da egia» esaten omen nuen segidan amaren solaskidearen zorionerako,³⁰ «honek hau eta bestea dauka» esaten nuen eta xehetasun guztiak kontatzen nituen. Errieta egiten zidan gero amak, berak gauza bat esaten bazuen kanpoko norbaiten aurrean ni isilik geratu behar nintzela, nahiz eta berak esaten zuena egia erdia izan. Baina nik ezin izaten nuen. Jolasten ari nintzen bitartean helduak hitz egiten entzuten nituen eta ezin isildu gero.⁴⁰

Ikasi dut denborarekin isiltzen, baina oraindik ere gustukoa dut begira egotea.

Adibidea:

0. Idazleak nondik ateratzen ditu gaiak?
- Bere haurtzarora jotzen du.
 - Bizitzan gertatzen diren gauzetatik.
 - Beste zutabeetan irakurriz.
 - Jendeak bidalitako gutunetatik.

- Nolako zen haurtzaroan?
 - Mugitua, baina esanekoa.
 - Beti galdezka aritzen zena.
 - Adi-adi egoten zena.
 - Lasaia eta isila.
- Zer egin zuen behin txikitan?
 - Etxeko kontuak zabaldu.
 - Amak zioena baieztatu.
 - Auzokoaren berri eman amari.
 - Auzokoaren kontra gaizki esaka aritu.
- Nola jokutzen du orain idazle gisa?
 - Txikitan bezala, gauza bera egiten du orain ere.
 - Arreta gutxiago jartzen du inguruko gauzetan.
 - Orain gehiago hitz egiten du lehen baino.
 - Orain badaki noiz ez duen hitz egin behar.
- Zergatik dio idazleak "Haur lotsagabea bezala" izenburuan?
 - Haur lotsagabeei nola jokatu irakatsi behar zaielako.
 - Bere lanean gorde dituelako haur-garaiko ezaugarri batzuk.
 - Pentsatzen duen guztia lotsarik gabe esaten duelako.
 - Ahaztu dituelako haur-garaiko ohitura guztiak.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- b	1.-	2.-	3.-	4.-
--------------	------------	------------	------------	------------

2. egitekoa

Zer esan nahi dute testuan ondoren beltzez idatzita dituzun adierazpenek.

Aukeratu ezazu erantzun egokia eta idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

Adibidea:

0. ... *inguruko gauzetan* **arreta jartzen**... (2. lerroan)

a. *axolagabe* jokutzen

b. *interesa* jartzen

c. *denbora* pasatzen

1. ... **jendeari erreparatu** ... (10. lerroan)

a. jendeari erreparatuak jarri

b. jendeari baimena eskatu

c. jendeari begira egon

2. Ez zen bere etxeko kontuak **aireratzen ibili zale** ... (27. lerroan)

a. ez zela haizea hartzen ibiltzen etxekoekin

b. ez zuela gustuko etxeko gauzen berri ematea

c. ez zela ibiltzen etxekoei gauzak airean uzten

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- b	1.-	2.-
-------	-----	-----

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
eskatutakoari erantzun diozun
testu egokia osatu duzun
euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroretarako arkatza erabil dezakezu).

Honako berri hau irakurri duzu **Berria** egunkarian.

"Azala salgai"
Publizitatea gorputzean
tatuatzeko hasi dira Ameriketako Estatu Batuetan, eta
salmentek nabarmen egin dute gora denbora gutxian.

Hori ikusita, **Berria** egunkariko eztabaidagunean zure iritzia idaztea erabaki duzu.

Eman zure iritzia.

Gutxienez, **200 hitz** idatzi behar dituzu.

Iritzia emateko, nahi baduzu, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Zer iruditzen zaizu berri hori?
- Gurera ere helduko dela uste duzu? Zergatik?
- Nolako zen lehen publizitatea? Eta gaur egun?
- Badu gauza onik? Txarrik?
- Zein da gustuko duzun publizitate mota? Zein ez?
- Iragarkiei buruz zer esango zenuke?
- Zer lortu nahi dute? Lortzen dute helburua?
- Zein izango da publizitatearen etorkizuna?



**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

BIGARREN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia 50 gutxienez, 28	Irakurmena	%20	gutxienez 10	20 puntu	45min inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60min
Ahozko proba 50 gutxienez, 27	Entzumena	%20	Gutxienez 10	20 puntu	25min
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10min
GUZTIRA		%100	gutxienez 55	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Emaitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagokion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.